Zizur Nagusiko Udala
Ayuntamiento de Zizur Mayor

Parque Erreniega Parkea, s/n
31180 ZIZUR MAYOR-ZIZUR NAGUSIA
NAFARROA-NAVARRA
CIF / IFK: P3190700-I
Tel: 948181900
www.zizurmayor.es

| ZIZURNAGUSIKO UDALAREN ETA ERRENIEGA ARDOI MENDI KLUBAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA | CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE EL AYUNTAMIENTO DE ZIZUR MAYOR Y EL CLUB DE MONTAÑA ERRENIEGA ARDOI |
|---|---|

**Zizur Nagusian, 2025eko otsailaren 10(e)an**

**En Zizur Mayor, a 10 de febrero de 2025**

**BILDURIK**

Batetik, **Jon Gondan Cabrera Jn.**, ********* **NAN zenbakiduna**, Zizur Nagusiko Udalaren izenean eta ordezkari gisa, bertako alkatea den aldetik eta ekitaldi honetarako behar bezala gaituta.

Eta bestetik, **María del Mar Trapote Redondo And.**, ********* **NAN** zenbakiduna, **Erreniega Ardoi Mendi Klubaren** lehendakaria den aldetik, eta ekitaldi honetarako behar bezala gaituta.

Bi aldeek, bakoitzaren ordezkaritzan, behar den gaitasuna aitortzen diote elkarri hitzarmena egiteko eta horretara behartzeko.

**REUNIDOS**

De una parte **D. Jon Gondan Cabrera** con **D.N.I** *********, en nombre y representación del Ayuntamiento de Zizur Mayor, en su calidad de Alcalde del mismo y debidamente facultado para este acto.

Y de otra, **María del Mar Trapote Redondo** con D.N.I. ********* en calidad de presidenta del **Club de Montaña Erreniega Ardoi**, y debidamente facultado/a para este acto.

En la calidad con que actúan, mutuamente se reconocen la capacidad legal suficiente para contratar y obligarse a tal efecto,

**MOTIBAZIOAK**

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 22. artikuluarekin bat, dirulaguntzak zuzenean ematen ahalko dira udal aurrekontuetan dirulaguntza izendun gisa aurreikusita daudenak, hitzarmenetan eta dirulaguntzak arautzen dituzten arauetan ezarritakoaren arabera.

Zizur Nagusiko Udalaren 2025eko ekitaldirako udal aurrekontuan **Erreniega Ardoi Mendi Klubari 3.000 euroko** dirulaguntza ematea aurreikusten da,

**MOTIVACIÓN**

Que el artículo 22 de la Ley General de Subvenciones 38/2003, de 17 de noviembre, prevé como supuesto de concesión directa de subvenciones el de las previstas nominativamente en los presupuestos municipales, de conformidad con lo establecido en los convenios y en la normativa reguladora de las mismas.

Que el Presupuesto Municipal del Ayuntamiento de Zizur Mayor- Zizur Nagusia para el ejercicio 2025 contiene la previsión del otorgamiento de una subvención a favor

Parque Erreniega Parkea, s/n
31180 ZIZUR MAYOR-ZIZUR NAGUSIA
NAFARROA-NAVARRA
CIF / IFK: P3190700-I
Tel: 948181900
www.zizurmayor.es

mendiari eta neguko kirolei lotutako kirol jarduerak sustatzeko ekitaldiak **2025**ean egiten laguntzeko.

Zizur Nagusiko Udalak ondasun publikotzat eta bertako herritarrendako zerbitzutzat jotzen du bai kirol sustapena, bai gorputz heziketaren eta kirolaren garapena, eta **Erreniega Ardoi Mendi Kluba** kirolaren adierazgarri garrantzitsua da. Udalaren kirol programazioaren barnean sartzen da kirol jarduerak antolatzea, kirol bizitza dinamizatzeko bitartekoa baita, bertako biztanleen kirol eskaerei erantzunez, eta, bereziki, mendizaletasunean eta xendazaletasunean aritzeko sustapenari dagokionez.

Erreniega Ardoi Mendi Kluba Nafarroako Kirol Entitateen erregistroan inskribatuz eratu zen 2023ko apirilaren 14an. **Erreniega Ardoi Mendi Klubeko** estatutuetan xedetzat daude bildurik, besteak beste, jarduera fisikoaren eta kirolaren sustapena eta jarduna, eta bazkideen eta klubak antolatzen dituen jardueretan parte hartzen dutenen giza eta kirol prestakuntza.

Hori dela eta, behar diren tresnak jarri behar dira, Erakunde Publikoaren eta Klubaren artean lankidetza-lerro bat ezartzeko, ahaleginak batuz eta lana koordinatuz Zizur Nagusiko herritarren bizi-kalitatea hobetzea ahalbidetze aldera.

Bi erakundeek interesa baitute, beren jarduketak hitzartzea itundu dute, baliabideak hobeki aprobetxatzeko, xede zabalagoak planifikatze eta lortze aldera. Horrenbestez,

del Club de **Montaña Errreniega** Ardoi por importe de **3.000 euros**, con la finalidad de apoyar la realización de actividades de promoción de actividades deportivas con dedicación a la montaña y deportes de invierno durante el año **2025**.

Que el Ayuntamiento de Zizur Mayor considera como un bien público y un servicio para su ciudadanía la promoción deportiva y el desarrollo de la Educación física y el Deporte, siendo el **Club de Montaña Errreniega Ardoi** un importante exponente del deporte. En el marco de la programación deportiva municipal se incluyen la organización de actividades deportivas como medio para dinamizar la vida deportiva cubriendo las demandas deportivas de los/as habitantes de ésta y específicamente en lo relativo a la promoción para la práctica del montañismo y senderismo.

Que el **Club de Montaña Errreniega Ardoi** fue constituido mediante inscripción en el registro de Entidades Deportivas de Navarra el día 14 de abril de 2023. En los Estatutos del Club de Montaña Errreniega Ardoi se recogen, entre otros, como fines el fomento y la práctica de la actividad física y deportiva y la formación humana y deportiva de las personas socias y de quienes participen en las actividades que organice.

Es por ello que se hace conveniente arbitrar los instrumentos necesarios para establecer una línea de colaboración entre la Institución Pública y el Club, que permita mediante la unión de esfuerzos, y trabajo coordinado, una mejora de la calidad de vida de la ciudadanía de Zizur Mayor.

Que, interesadas ambas entidades, han convenido concertar sus actuaciones en aras a un mejor aprovechamiento de los

Parque Erreniega Parkea, s/n
31180 ZIZUR MAYOR-ZIZUR NAGUSIA
NAFARROA-NAVARRA
CIF / IFK: P3190700-I
Tel: 948181900
www.zizurmayor.es

recursos, que permita planificar y alcanzar fines más amplios, y para ello

**HITZARTU DUTE**

**LEHENA: XEDEA**

Dirulaguntzaren xedea da onuradunari mendiari eta neguko kirolei lotutako kirol jarduerak egiten laguntzea 2025. urtean, hark berak aurkezten duen jarduera proiektuaren arabera.

Zizur Nagusiko Udalak, Kirol Alorraren bitartez, **Erreniega Ardoi Mendi Klubari** adierazten dio mendiari eta neguko kirolei lotutako kirol jarduerak herrikoitasunez eta era parte-hartzailean egitea nahi duela, hau da, udalerrian erroldatutako pertsona orok klubean parte hartzeko eskubidea izan dezala.

Horretarako, baloratzen da **Erreniega Ardoi Mendi Klubak** mendiari eta neguko kirolei lotutako kirol jarduerak koordinatzeko duen gaitasun teknikoa eta antolaketa mailakoa, bai eta hura garatzean sortzen diren kudeaketa eta administrazio lanak egiteko gaitasuna ere.

**ACUERDAN**

**PRIMERA: OBJETO**

El objeto de la subvención lo constituye apoyar la realización por el beneficiario de promoción de actividades deportivas con dedicación a la montaña y deportes de invierno durante el año 2025, conforme a proyecto de actividades que el mismo presente.

El Ayuntamiento de Zizur Mayor, a través del Área de Deportes, hace constar al **Club de Montaña Erreniega Ardoi** su deseo de que la práctica de actividades deportivas con dedicación a la montaña y deportes de invierno se realicen desde un ámbito popular y participativo, esto es, que toda aquella persona empadronada en el municipio tenga derecho a participar en el club.

Se valora al efecto, la capacidad técnica y organizativa del **Club de Montaña Erreniega Ardoi** para llevar a cabo la coordinación de actividades deportivas con dedicación a la montaña y deportes de invierno, así como la gestión y las tareas administrativas que surjan en el desarrollo de la misma.

**BIGARRENA: ESPAZIOAK ETA INSTALAZIOAK LAGATZEA**

Udalak erabilera partekatuko espazio bat utziko du, **Erreniega Ardoi Mendi Klubak** bere gain har ditzan lehenengo klausulan adierazitako kirol jardueren antolaketa eta koordinazioa, bai eta hura garatzean sortzen

**SEGUNDA: CESIÓN DE ESPACIOS E INSTALACIONES**

El Ayuntamiento cederá un espacio de uso compartido para que el **Club de Montaña Erreniega Ardoi** asuma la organización y coordinación de las actividades deportivas indicadas en la cláusula primera, así como la

Parque Erreniega Parkea, s/n
31180 ZIZUR MAYOR-ZIZUR NAGUSIA
NAFARROA-NAVARRA
CIF / IFK: P3190700-I
Tel: 948181900
www.zizurmayor.es

diren kudeaketa eta administrazio lanak ere.
Ahal den neurrian, Udalak espazio egokia lagako du, jarduerak egiteko behar den kirol materiala eta ekipamendua gordetzeko.
Era berean, Udalak udal instalazioen erabilera erraztuko du, rokodromoa kasu, Erreniega Ardoi Mendi Klubak antolatutako jarduerak egiteko, betiere udal jarduerari traba egiten ez badiote eta eskuragarri badaude, eta erabilera horrek ez badu eragozten eta ez badu gorabeherarik sortzen Udalaren eta rokodromoko eskalada jardueren enpresa esleipendunaren arteko kontratuarekin.
**Erreniega Ardoi Mendi Klubak** konpromisoa hartu du Zizur Nagusiko Udalak emandako espazioak, altzariak, materialak, etab. zaintzeko

gestión y las tareas administrativas que surjan en el desarrollo de la misma.
En la medida de lo posible, el Ayuntamiento cederá un espacio adecuado para guardar el material y equipamiento deportivo necesario para la realización de las actividades.
Asimismo, el Ayuntamiento facilitará el uso de las instalaciones municipales, como el rocódromo, para la realización de actividades organizadas por el Club de Montaña Erreniega Ardoi, siempre que no solapen la actividad municipal y estén disponibles, y que dicho uso no interfiera ni genere conflictos con el contrato entre el Ayuntamiento y la empresa adjudicataria de las actividades de escalada en el rocódromo.
El **Club de Montaña Erreniega Ardoi** se compromete a cuidar de los espacios, el mobiliario, los materiales, etc. facilitados por el Ayuntamiento de Zizur Mayor.

## HIRUGARRENA: DIRULAGUNTZA

Dirulaguntzaren zenbatekoa **HIRU MILA EUROKOA** da (**3.000€**), Udalak bere osoan jarriko duena, aurrekontuko 1 3410048203 partidaren kontura (Mendi Klubarendako dirulaguntza).

## TERCERA: SUBVENCIÓN

El importe de la subvención asciende a **TRES MIL EUROS** (**3.000€**), que se aportarán íntegramente por el Ayuntamiento, con cargo a la partida presupuestaria 1 3410048203 Subvención Club Montaña.

## LAUGARRENA: BESTE DIRULAGUNTZA BATZUEKIKO BATERAGARRITASUNA

Dirulaguntza hau bateragarria da onuradunak dirulaguntza honen xedea betetzeko eskura ditzakeen beste batzuekin, salbu eta jasotako laguntzek diruz lagundutako jardueraren kostua gainditzen badute; kasu horretan, muga horretara arte murriztuko da.

## CUARTA: CONCURRENCIA CON OTRAS SUBVENCIONES

La presente subvención resulta compatible con otras que pudiera obtener la beneficiaria para la realización del objeto de esta subvención, salvo que las ayudas percibidas superen el coste de la actividad subvencionada, en cuyo caso se reducirá hasta dicho límite.

Parque Erreniega Parkea, s/n
31180 ZIZUR MAYOR-ZIZUR NAGUSIA
NAFARROA-NAVARRA
CIF / IFK: P3190700-I
Tel: 948181900
www.zizurmayor.es

**BOSGARRENA: ESKAERA ETA ORDAINKETA**

Dirulaguntzaren % 75 aldez aurretik ordainduko da, onuradunak Zizur Nagusiko Udaleko Erregistro Orokorrean eskabidea aurkeztu eta gero. Eskabidearekin batera honako hauek aurkeztu beharko dira:

a) Laguntza eskabidea (1. eranskina)
b) Erantzukizunpeko adierazpena; hartan jasoko da eskatzaileak Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta deialdi honetan onuradun izateko eskatzen diren baldintza orokorrak betetzen dituela, eta ez duela inolako debekurik Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 artikuluan (2. eranskina) azaldutakoen artean onuradun izateko.
c) Beste administrazio, erakunde edo pertsona publiko edo pribatu batzuengandik xede bererako jasotako dirulaguntza-eskabideen adierazpena, zenbat eskatu eta lortu den eta erakundearen izena zehaztuta. (3. eranskina).
d) Klubaren legezko ordezkariak emandako erantzukizunpeko adierazpena, jarduerak egiten dituzten pertsona guztiek eta boluntarioek Adingabeen Babes Juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoaren 13.5 artikuluan (Kode Zibila eta Prozedura Zibilaren Legea partzialki aldatzen dituena) eta Boluntariotzari buruzko urriaren 14ko 45/2015 Legean aurreikusitako baldintza betetzen dutela adierazten duena.
e) Urtean urteko jarduera proiektua,

Dirulaguntzaren gainerakoa emandako laguntzaren azken justifikazioa egin ondoren

**QUINTA: SOLICITUD Y ABONO**

La presente subvención se abonará en forma de pago anticipado del 75 % previa solicitud presentada por el beneficiario en el Registro General del Ayuntamiento de Zizur Mayor-Zizur
Nagusia a la que se deberá adjuntar:

a) Solicitud de ayuda (Anexo 1)
b) Declaración responsable en la que se haga constar que la persona solicitante cumple los requisitos generales para obtener la condición de beneficiaria exigidos por la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y los específicos de esta convocatoria y que no se halla incursa en ninguna causa de prohibición para obtener la condición de beneficiaria de las enumeradas en el artículo 13.2 de la a Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones (Anexo 2).
c) Declaración de las solicitudes de subvención para el mismo objeto percibidas de otras administraciones, entidades o personas públicas o privadas, detallando la cantidad solicitada, nombre de la entidad y cantidad obtenida. (Anexo 3).
d) Declaración responsable emitida por la o el representante legal del club de que todas las personas que realicen las actividades, así como las personas voluntarias cumplen el requisito previsto en el artículo 13.5 de la Ley Orgánica 1/1996, de 15 de enero, de Protección Jurídica del Menor, de Modificación Parcial del Código Civil y de la Ley de Enjuiciamiento Civil y del artículo de la Ley 45/2015, de 14 de octubre, de Voluntariado.
e) Proyecto de actividades para el año en

Parque Erreniega Parkea, s/n
31180 ZIZUR MAYOR-ZIZUR NAGUSIA
NAFARROA-NAVARRA
CIF / IFK: P3190700-I
Tel: 948181900
www.zizurmayor.es

ordainduko da.

curso,

El resto de subvención se abonará previa justificación final de la ayuda concedida.

**SEIGARRENA: KLUBAREN BETEBEHARRAK**

- Onuradunak jasotako diruak ezin izanen dira erabili dirulaguntza honen xedea gauzatzeak dakartzan gastuak eta elkartearen beraren jarduerak ordaintzeko baino.
- Emandako dirulaguntza hitzarmen honetan adierazitako baldintzetan justifikatzea.
- Zizur Nagusiko Udalaren egiaztapen jarduketei men egitea eta eskatzen zaion dokumentazioa eta informazioa ematea.
- Hitzarmen honen baitan egindako programak, jarduerak eta zerbitzuak udal honetako zerbitzu edo alorrekin koordinatzea.
- Diruz lagundutako jarduerarekin zerikusia duen edozein dirulaguntza edo diru-sarreraren berri ematea, jakin bezain laster eta, nolanahi ere, justifikazioan.

**SEXTA: OBLIGACIONES DEL CLUB**

- Los fondos recibidos por la beneficiaria no podrán ser aplicados a finalidad distinta que la de sufragar los gastos que conlleve la realización del objeto de esta subvención, así como las actividades de la propia Asociación.
- Justificar la subvención concedida en los términos señalados en el presente convenio.
- Someterse a las actuaciones de comprobación por parte del Ayuntamiento de Zizur Mayor- Zizur Nagusia y facilitar la documentación e información necesaria que le sea requerida.
- Coordinar sus programas, actividades y servicios realizados en el marco de este convenio con servicios o áreas de este ayuntamiento.
- Comunicar cualquier subvención o ingreso obtenido relacionado con la actividad subvencionada en el momento de conocerse y en cualquier caso en la justificación.

**ZAZPIGARRENA: GASTUAREN JUSTIFIKAZIOA**

Honako dokumentu hauek osatuko dute justifikazio-kontua:

a) **Egindako jardueren ebaluazio txostena.** Idazketan hizkuntza inklusiboa erabiliko da, eta erabiltzen diren irudiek emakumeen eta gizonen irudi ez-

**SÉTPIMA: JUSTIFICACIÓN DEL GASTO**

La cuenta justificativa estará formada por los documentos que a continuación se indican:

a) **Memoria evaluativa de las actividades realizadas.** En su redacción se utilizará un lenguaje inclusivo y las imágenes que se utilicen deberán mostrar una imagen

Parque Erreniega Parkea, s/n
31180 ZIZUR MAYOR-ZIZUR NAGUSIA
NAFARROA-NAVARRA
CIF / IFK: P3190700-I
Tel: 948181900
www.zizurmayor.es

estereotipatua erakutsi beharko dute.

**b) Memoria ekonomikoa**

**a.** Gastuen balantzea (autobusak, materiala, ekipamendua, dirulaguntzak, babesletzak, klubeko langileak, etab.) eta diru-sarrerak.

Maiatzaren 17ko 205/2004 FDk (uztailaren 4ko 96/2005 FDk aldatua) aipatzen dituen egiaztagiriak, fakturak edo ordezko agiriak, ordainagiriak, bai eta nominak, zergak eta Gizarte Segurantzako kuotak ere, eta trafiko juridikoan balioa duten edo administrazio eraginkortasuna duten froga-balio baliokideko gainerako agiriak, egindako gastua egiaztatzen dutenak, hurrenkera korrelatiboan antolatuta, Udalak emandako dirulaguntzaren zenbatekoa justifikatzen duen zerrenda zenbakituaren arabera. Dokumentu horiek fotokopiatuko dira, eta zerbitzu kudeatzaileak konpultsatuta eta osatuta utziko dira, jatorrizko dokumentuak interesdunei itzulita. Dokumentu horien originalak edo haien kopia konpultsatuak erakunde onuradunean gordailutuko dira gutxienez lau urtez.

**b.** Hartzekodunei egindako ordainketen egiaztagiriak. Ordainketaren egiaztapena banku-zordunketaren bidez edo behar bezala sinatutako jaso-agiriaren bidez eginen da, edo aurkeztutako fakturak ordaindu direla egiaztatzen duen beste agiri baten bidez.

**c)** Beste administrazio, erakunde edo pertsona publiko edo pribatu batzuengandik **xede bererako** jasotako **dirulaguntza-eskabideen adierazpena,** zenbat eskatu eta lortu den eta erakundearen izena zehaztuta. (3. eranskina).

no estereotipada de mujeres y hombres.

**b) Memoria económica**

**a.** Balance de gastos (autobuses, material, equipamiento, subvenciones, patrocinios, personal del club, etc.) e ingresos

Documentos justificativos, facturas o documentos sustitutivos a los que hace referencia el DF 205/2004 de 17 de Mayo (modificado por D.F 96/2005 de 4 de julio), recibos, incluso nóminas, tributos y cuotas a la Seguridad Social y demás documentos de valor probatorio equivalente con validez en el tráfico jurídico o con eficacia administrativa acreditativos del gasto realizado, ordenados correlativamente según el número de orden asignado en relación numerada que justifique el importe de subvención aportado por el Ayuntamiento. Dichos documentos, serán fotocopiados y se dejarán compulsados y conformados por el servicio gestor, devolviendo los originales a las personas interesadas. Los originales de dichos documentos o su copia compulsada quedarán depositados en la entidad beneficiaria durante un periodo de al menos cuatro años.

**b.** Documentos acreditativos de los pagos a acreedores o acreedoras. La acreditación de pago se efectuará mediante adeudo bancario, recibí debidamente firmado, u otro documento acreditativo de que las facturas presentadas han sido pagadas.

**c) Declaración de las solicitudes de subvención para el mismo objeto** percibidas de otras administraciones, entidades o personas públicas o privadas, detallando la cantidad

Parque Erreniega Parkea, s/n
31180 ZIZUR MAYOR-ZIZUR NAGUSIA
NAFARROA-NAVARRA
CIF / IFK: P3190700-I
Tel: 948181900
www.zizurmayor.es

d) **Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.** Zizur Nagusiko Udalarekiko zerga-betebeharrak eguneratuak izatearen betekizuna ofizioz eginen da.

Gastuaren justifikazio osoa aurkezteko epea **2026ko urtarrilaren 31n** amaituko da.

Ordainketa justifikatu gabeko zatian murriztuko da, eta hasierako ordainketa justifikatu ezean, dagokion zati proportzionala itzultzeko eskatzen ahalko da.

solicitada, nombre de la entidad y cantidad obtenida. (Anexo 3).

d) **Certificado de hallarse al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social**. El cumplimiento de hallarse al corriente de las obligaciones tributarias con el Ayuntamiento de Zizur Mayor- Zizur Nagusia se efectuará de oficio.

El plazo para presentar la justificación total del gasto finalizará el **31 de enero de 2026.**

Se reducirá el pago en la parte no justificada pudiéndose solicitar el reintegro de la parte proporcional que corresponda si no se llega a justificar el pago inicial.

## ZORTZIGARRENA: BESTELAKO BETEBEHARRAK

**KLUBAK NAHITAEZ BETE BEHARREKO BALDINTZAK ETA ARAUDIA**

a) Legez eratuta egon beharko du, bai eta Nafarroako Gobernuko Kirol Erakundeen Erregistroan alta emanik ere.
b) Egoitza Zizur Nagusian izanen du.
c) 15/2001 Foru Legea, Nafarroako kirolari buruzkoa
d) 18/2019 Foru Legea, Nafarroan kirol-lanbidean hasteari eta jarduteari buruzkoa.
e) 2/1998 Foru Legea, Nafarroako Boluntariotzari buruzkoa

**TEKNIKOAK**

Erreniega Ardoi Mendi Klubak mendizaletasunarekin eta xendazaletasunarekin lotutako kirol, kultur,

## OCTAVA: OTRAS OBLIGACIONES

**NORMATIVA DE OBLIGADO CUMPLIMIENTO DEL CLUB**

a) Deberá estar legalmente constituido y dado de alta en el Registro de Entidades Deportivas del Gobierno de Navarra.
b) Tendrá la sede social en el municipio de Zizur Mayor.
c) Ley Foral 15/2001, del deporte de Navarra
d) Ley Foral 18/2019, sobre acceso y ejercicio de las profesiones del deporte en Navarra.
e) Ley Foral 2/1998, del Voluntariado de Navarra

**TÉCNICAS**

El Club de Montaña Erreniega Ardoi organizará actividades deportivas, culturales, formativas y de ocio relacionadas

Parque Erreniega Parkea, s/n
31180 ZIZUR MAYOR-ZIZUR NAGUSIA
NAFARROA-NAVARRA
CIF / IFK: P3190700-I
Tel: 948181900
www.zizurmayor.es

prestakuntza eta aisia jarduerak antolatuko ditu, kirola eta bizitza aktiboa sustatzen lagunduko dutenak. Jarduera horiek Zizur Nagusiko bizilagunen parte-hartzera egonen dira bideratua.

Erreniega Ardoi Mendi Klubak bere gain hartuko ditu Klubak antolatutako kirol jardueretan parte hartzeko interesa duten pertsonen federazio-lizentzien kontrola eta tramitazioa, bai eta Zizur Nagusian erroldatutakoen lizentziak ere, klubeko bazkide izan ala ez.

Zizur Nagusiko Udalak bere Kirol Alorraren bidez ezartzen dituen epeetan eta moduan, eta, oro har, klubak izena emateko prozesuak hasi aurretik, Erreniega Ardoi Mendi Klubak konpromisoa hartzen du bere kideek ordaindu behar dituzten kuotak aurkezteko, bai eta beharrezkotzat jotzen den beste edozein dokumentazio osagarri ere, eta Kirol Alorrak adostasuna eman beharko dio horri, eta kuoten berri eman beharko dio Kirol Batzordeari.

Erreniega Ardoi Mendi Klubak pertsona bat izendatuko du "Erantzule" gisa, eta lotura edo kontaktu gisa jardungo du Kirol Alorreko teknikariekin, programaren antolaketaren eta garapenaren jarraipena egiteko. Pertsona horiek aldizka edo haietako batek proposatuta bilduko dira.

**SOZIALAK**

Erreniega Ardoi Mendi Klubak Zizur Nagusiko biztanle guztiengana zabalduko du mendiari eta neguko kirolei lotutako kirol jardueren praktika berdintasun baldintzetan eta inolako diskriminaziorik gabe, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 17/2019 Foru Legearen eta Zizur Nagusiko Udalaren

con la montaña y el senderismo, que contribuyan al fomento del deporte y la vida activa. Estas actividades irán encaminadas a la participación de la vecindad de Zizur Mayor.

El Club de Montaña Erreniega Ardoi asumirá el control y la tramitación de licencias federativas de las personas interesadas en participar en las actividades deportivas organizadas por el Club, así como de las personas empadronadas en Zizur Mayor interesadas en obtener la licencia, independientemente de que sean socias o no del club.

En los plazos y en la forma que el Ayuntamiento de Zizur Mayor a través de su Área de Deportes establezca, y de forma general antes de que el club inicie los procesos de inscripción el Club de Montaña Erreniega Ardoi se compromete a presentar las distintas cuotas que deban abonar sus integrantes, así como cualquier documentación adicional que se considere necesaria, debiendo el Área de Deportes dar conformidad a la misma e informando de las cuotas a la Comisión de Deportes.

El Club de Montaña Erreniega Ardoi designará a una persona como "Responsable", quien actuará de enlace o contacto con el personal técnico del Área de deportes, de cara al seguimiento de la organización y desarrollo del programa. Estas personas se reunirán periódicamente o a propuesta de una de ellas.

**SOCIALES**

El Club de Montaña Erreniega Ardoi extenderá la práctica de las actividades deportivas con dedicación a la montaña y

Parque Erreniega Parkea, s/n
31180 ZIZUR MAYOR-ZIZUR NAGUSIA
NAFARROA-NAVARRA
CIF / IFK: P3190700-I
Tel: 948181900
www.zizurmayor.es

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Udal Ordenantzaren arabera. Ordenantza horren 43. artikuluan ezarritakoarekin bat, Zizurko Udalak Erreniega Ardoi Mendi Klubaren bidez egiten dituen programak erreferentzia izanen dira hezkidetzan edo berdintasunezko balioetan oinarritutako heziketan, parte hartzen dutenen, familien eta ingurunearen artean.
Horretarako, Berdintasunerako Udal Zerbitzuarekin koordinatuko da, eta zerbitzu horrek xede horretarako programatzen dituen jardueretan parte hartuko du.

- Neskatoek eta emakumeek kirol horretan sartu, agertu, parte hartu eta jarraitu dezaten sustatzea, eta halaber, neskatoei eta emakumeei esparru horretan ikusgaitasuna ematea.
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun printzipioa errespetatzen dela eta sexu- eta genero-aniztasuna errespetatzen dela zaintzea kirol ekitaldiak antolatzean eta haietan parte hartzean, bai eta sari eta aitortzen banaketan ere.

Ahal den neurrian, Erreniega Ardoi Mendi Klubak kirol jarduera euskaraz ere garatuko du; eta euskaraz eginen du beti, taldeen arduradunak euskaldunak badira eta parte-hartzaileak D ereduan eskolatuta badaude.

**ASEGURUAK**

Ateraldietan parte hartzen dutenek indarrean den federazio-lizentzia izanen dute edo, halakorik ezean, babesak zabalduko dituen aseguru harpidetu, praktikatik eratorritako lesio, istripu edota bestelako gorabeheretarako.

Erreniega Ardoi Mendi Klubak behar diren

deportes de invierno a toda la población de Zizur Mayor en condiciones de igualdad y sin ningún tipo de discriminación, según la Ley Foral 17/2019 de igualdad entre hombres y mujeres, y la Ordenanza Municipal para la igualdad entre mujeres y hombres del Ayuntamiento de Zizur Mayor. Como esta Ordenanza recoge en su art. 43, los programas propios del Ayuntamiento de Zizur realizados a través del Club de Montaña Erreniega Ardoi, serán referentes de la coeducación o educación en valores igualitarios, entre quienes participan, sus familias y entorno.
Para ello se coordinará con el Servicio Municipal de Igualdad, participando en las actividades que este servicio programe para tal fin.

- Fomentar la incorporación, presencia, participación y continuidad de las niñas y mujeres en este deporte, así como la visibilización de éstas en este ámbito.
- Velar por el respeto al principio de igualdad entre mujeres y hombres, y el respeto a la diversidad sexual y de género, en la organización y participación de eventos deportivos, así como en la concesión de premios y reconocimientos.

En la medida de lo posible, el Club de Montaña Erreniega Ardoi desarrollará la actividad deportiva también en euskera; y lo hará siempre en euskera cuando los grupos tengan responsables euskaldunes y deportistas escolarizados/as en el modelo D.

**SEGUROS**

Las personas participantes en las salidas contarán con licencia federativa vigente o, en su defecto, suscribir un seguro que amplíe las coberturas en caso de lesión,

Parque Erreniega Parkea, s/n
31180 ZIZUR MAYOR-ZIZUR NAGUSIA
NAFARROA-NAVARRA
CIF / IFK: P3190700-I
Tel: 948181900
www.zizurmayor.es

antolaketa neurriak hartuko ditu zuzendarien, teknikarien, kirolarien eta gainerako boluntarioen segurtasuna uneoro bermatzeko, kirol arloko araudia eta erregelamendua betetzearren (kirol ekipamendun segurtasuna, ateraldien antolaketa…).

Indarrean dagoen legediaren arabera, Erreniega Ardoi Mendi Kluba izanen da bere kideek, entrenatzaileek, kirolariek eta kirolean aritzen direnek beren jarduereretan zehar eragindako kalte-galeren erantzulea.

Xede horretarako, erantzukizun zibileko aseguru bat kontratatu beharko du.

**PUBLIZITATEA**

Udalak "ARDOI" izena lagako du, eta huraxe nahitaez eta lehentasunez erabili beharko da. Era berean, babeslearen izena ere agertzen ahalko da, halakorik badago.

Jardueraren zabalkundean nahitaezkoa izanen da Zizur Nagusiko Udalaren laguntza aipatzea, Udalaren anagrama ofiziala ere jarrita.

Klubak herritarrei helarazten dizkien era guztietako jakinarazpenek eta euskarriek (kartelak, gutunak, zozketak, tiketak...) komunikazio barneratzailea eta ez-sexista sustatu behar dute, Zizur Nagusiko Udalaren hizkuntzaren erabilera ez-sexista eta komunikazio barneratzailea arautzen dituen ordenantzarekin bat. Klubak horretarako behar besteko gaitasunik ez badu, Berdintasunerako Udal Zerbitzura jo dezake.

Era berean, horiek oro euskaraz eta gaztelaniaz zabalduko dira. Klubak horretarako behar besteko gaitasunik ez

accidente u otras eventualidades derivadas de la práctica.

El Club de Montaña Erreniega Ardoi adoptará las medidas organizativas necesarias para garantizar, en todo momento, la seguridad de la directiva, el personal técnico, deportistas y demás personas voluntarias, cumpliendo con la normativa y reglamento deportivo (seguridad del equipamiento deportivo, organización de las salidas…).

El Club de Montaña Erreniega Ardoi será responsable, conforme a la legislación vigente, de los daños y perjuicios que ocasionen sus miembros, deportistas y practicantes durante el ejercicio de sus actividades. A tal efecto, deberán contratar un seguro de responsabilidad civil.

**PUBLICIDAD**

El Ayuntamiento cederá la denominación "ARDOI", que será de uso obligatorio y preferente, y podrá figurar también el nombre de quien patrocine, si lo hubiere.

En la difusión de la actividad será obligatorio mencionar la colaboración del Ayuntamiento de Zizur Mayor, colocando el anagrama oficial del mismo.

Las comunicaciones de todo tipo y soportes – carteles, cartas, rifas, tickets… que el Club hace llegar a la ciudadanía deben fomentar una comunicación incluyente y no sexista, como recoge la Ordenanza reguladora del uso no sexista del lenguaje y una comunicación incluyente del Ayuntamiento de Zizur Mayor. Si el Club no tuviera la capacidad suficiente para ello, puede dirigirse al Servicio Municipal de Igualdad.

Parque Erreniega Parkea, s/n
31180 ZIZUR MAYOR-ZIZUR NAGUSIA
NAFARROA-NAVARRA
CIF / IFK: P3190700-I
Tel: 948181900
www.zizurmayor.es

badu, Udalaren Euskara Zerbitzura jo dezake (itzulpen zerbitzua ezarritako baldintzetan erabiltzeko).

Asimismo, éstas se difundirán en euskera y castellano. Si el club no tuviera la capacidad suficiente para ello, puede dirigirse al Servicio Municipal de Euskera (para utilizar el servicio de traducción en las condiciones establecidas).

**BEDERATZIGARRENA: HITZARMENAREN INDARRALDIA**

Hitzarmen hau 2025eko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean, eta 2025eko abenduaren 31n amaituko da.

**NOVENA: VIGENCIA DEL CONVENIO**

El presente convenio entrará en vigor el 1 de enero de 2025 y finalizará el 31 de diciembre de 2025.

**HAMARGARRENA: JARRAIPEN BATZORDEA**

Kirol eta Jarduera Fisikorako Informazio Batzordea arduratuko da hitzarmen honen betekizunaren eta eraginkortasunaren jarraipenaz eta ebaluazioaz. Batzorde horretara bertaratzen ahalko da Erreniega Ardoi Mendi Klubeko presidentea edo hark eskuordetzen duen pertsona edo pertsonak.

**DÉCIMA: COMISION DE SEGUIMIENTO**

La Comisión Informativa de Deportes y Actividad Física será la encargada del seguimiento y evaluación del cumplimiento y eficacia de este convenio. A esta comisión podrá asistir el Presidente/a Club de Montaña Erreniega Ardoi o la persona o personas en quien delegue.

**HAMAIKAGARRENA: HITZARMENAREN SUNTSIPENA**

Honakoak dira hitzarmena suntsitzeko arrazoiak:

- Erreniega Ardoi Mendi Klubaren iraungipena
- Alderdien arteko akordioa

Hitzarmen honetan jasotako betebehar eta baldintzetako edozein betetzen ez bada, edo egindako jarduerak hasierako proiektuarekin edo aplikatu beharreko beste edozein araudirekin bat ez datozela ikusten bada, Zizur Nagusiko Udalak hitzarmena suntsiarazten ahalko du.

Hitzarmen honetan ezarritakoaren gainean

**UNDÉCIMA: RESOLUCIÓN**

Son causas de resolución del convenio:

- Extinción del Club de Montaña Erreniega Ardoi
- Mutuo acuerdo de las partes

Ante el incumplimiento de cualquiera de las obligaciones y requisitos contenidos en el presente convenio, o en caso de observar que las actividades desarrolladas no se ajustan al proyecto inicial, o a cualquier otra normativa de aplicación el Ayuntamiento de Zizur Mayor podrá determinar la resolución del convenio.

Cualquier posible modificación sobre lo establecido en el presente convenio podrá

egin daitekeen edozein aldaketa Udalak eta Erreniega Ardoi Mendi Klubak aztertzen ahalko dute, zertarako eta, biak ados jarrita, aplikatu ahal izateko, hala badagokio.

Hitzarmen hau suntsitzen bada, bi alderdiek hitzartu dute klubari esleitu zaizkion aretoak itzuli beharko direla lagatzeko orduan zeuden baldintza beretan.

ser estudiada por el Ayuntamiento y por el Club de Montaña Erreniega Ardoi para, de mutuo acuerdo, aplicarla, si hubiera lugar.

En caso de resolución del presente convenio, ambas partes acuerdan que los locales que hayan sido atribuidos al club deberán ser devueltos en las mismas condiciones en las que se encontraban al momento de la cesión.

**HAMABIGARRENA: ARRISKUA ETA MENTURA**

Zizur Nagusiko Udalaren eta Erreniega Ardoi Mendi Klubaren artean sinatu beharreko hitzarmenaren arriskua eta mentura Erreniega Ardoi Mendi Klubaren gain egonen dira, eta ez du eskubiderik izanen bere betebeharrak betetzean izan ditzakeen galera edo galerengatik saritua izateko.

**DUODÉCIMA: RIESGO Y VENTURA**

El convenio a suscribir entre el Ayuntamiento de Zizur Mayor y el Club de Montaña Erreniega Ardoi será a riesgo y ventura de este último, quien no tendrá derecho alguno a ser compensado por pérdidas o perjuicios que sufra con ocasión del cumplimiento de sus obligaciones.

**HAMABIGARRENA: DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA**

Hitzarmen honetan tratatutako datu pertsonalei dagokienez, bi alderdiak dira tratamenduaren erantzuleak, eta hitzarmen honen xede diren pertsona fisikoen datuak tratatuko dituzte, hitzarmenaren gauzapena kudeatze aldera.

Datuak tratatzeko oinarri juridikoa hitzarmena betearaztea da (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 6.1.b) artikulua).

Datuak helburua bete arte gordeko dira, eta alderdiek tratamendutik eratorritako erantzukizunak izan bitartean gordeko dira. Udalaren kasuan, artxiboei eta dokumentuei buruzko apirilaren 4ko 12/2007 Foru Legean ezarritako kontserbazio arauak bete behar

**DUODÉCIMA: TRATAMIENTO DATOS PERSONALES**

En relación a los datos personales tratados en este convenio, ambas partes se reconocen como responsables de tratamiento y tratarán los datos de las personas físicas objeto del presente convenio con la finalidad de gestionar la ejecución del mismo.

La base jurídica por la cual se tratan sus datos es la ejecución del convenio (artículo 6.1.b) del Reglamento General de Protección de Datos)

Los datos se conservarán el tiempo necesario para el cumplimiento de la finalidad y se almacenarán mientras las partes puedan tener responsabilidades derivadas de su tratamiento. En el caso del

Parque Erreniega Parkea, s/n
31180 ZIZUR MAYOR-ZIZUR NAGUSIA
NAFARROA-NAVARRA
CIF / IFK: P3190700-I
Tel: 948181900
www.zizurmayor.es

dira.

Alderdietako edozeinek baliatzen ahalko ditu datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, mugatzeko edo aurka egiteko eskubideak, beste alderdiaren helbideetara joz.

Zure datuen tratamenduari dagokionez, datuak babesteko arau-hausteren bat egin dela uste baduzu, erreklamazio idatzia aurkeztu dezakezu Datuak Babesteko Espainiako Agentzian, Jorge Juan, 6, 28001 (Madril) helbidean edo Agentziako egoitza elektronikoaren bidez: www.agpd.es.

Zizur Nagusiko Udalaren ardurapeko erabiltzaileen datuen tratamenduaren erantzule gisa, klubak eta bere langile guztiek betebehar hauek izanen dituzte:

1. Tratatu beharreko datu pertsonalak, edo biltzen dituen datuak, enkargu honen xede den helbururako bakarrik erabiltzea. Datuak ezin izanen ditu inola ere erabili bere xedeetarako.
2. Datuak Zizur Nagusiko Udalaren jarraibideen arabera tratatzea.
3. Datu pertsonalak DBEOren 32. artikuluan aurreikusitako segurtasun irizpideekin eta edukiarekin bat tratatzea, eta eskuratu dituen datu pertsonalen konfidentzialtasuna, sekretua eta osotasuna bermatzeko beharrezkoak edo komenigarriak diren segurtasun neurri teknikoak eta antolakuntzakoak betetzea eta hartzea.
4. Zizur Nagusiko Udalaren kontura egindako tratamendu jardueren kategoria guztien erregistro idatzia egitea, gutxienez DBEOren 30. artikuluan ezarritako baldintzak jasoko dituena.
5. Datuak hirugarrenei ez jakinaraztea,

Ayuntamiento, se deben cumplir las normas de conservación establecidas en la Ley Foral 12/2007, de 4 de abril, de archivos y documentos.

Cualquiera de las partes podrá ejercitar los derechos de acceso, rectificación, supresión, limitación, u oposición al tratamiento dirigiéndose a las direcciones de la otra parte.

Si considera que se ha cometido una infracción de protección de datos respecto al tratamiento de sus datos pueden presentar una reclamación ante la Agencia Española de Protección de Datos mediante escrito dirigiéndose a C/ Jorge Juan, 6, 28001 (Madrid) o a través de su sede electrónica en www.agpd.es.

En la condición de encargado de tratamiento de los datos de las personas usuarias de las que es Responsable el Ayuntamiento de Zizur Mayor, el club y todo su personal se obliga a:

1. Utilizar los datos personales objeto de tratamiento, o los que recoja para su inclusión, sólo para la finalidad objeto de este encargo. En ningún caso podrá utilizar los datos para fines propios.
2. Tratar los datos de acuerdo con las instrucciones del Ayuntamiento de Zizur Mayor.
3. Tratar los datos personales de conformidad con los criterios de seguridad y el contenido previsto en el artículo 32 del RGPD, así como observar y adoptar las medidas técnicas y organizativas de seguridad necesarias o convenientes para asegurar la confidencialidad, secreto e integridad de los datos personales a los que tenga

Parque Erreniega Parkea, s/n
31180 ZIZUR MAYOR-ZIZUR NAGUSIA
NAFARROA-NAVARRA
CIF / IFK: P3190700-I
Tel: 948181900
www.zizurmayor.es

salbu eta tratamenduaren erantzulearen berariazko baimen idatzia badu, legez onargarriak diren kasuetan.

6. Datuen nazioarteko transferentziei dagokienez, tratamenduaren arduradunak ez du zilegi izanen datuen nazioarteko transferentziarik egitea.
7. Azpikontratazioa:
   Tratamenduren bat azpikontratatu behar izanez gero, aldez aurretik eta idatziz jakinarazi beharko zaio erantzuleari, hilabete lehenago, zer tratamendu azpikontratatu nahi den adierazita eta enpresa azpikontratista eta haren harremanetarako datuak argi eta garbi identifikatuta. Azpikontratazioa egiten ahalko da erantzuleak epe barnean aurka dagoela adierazten ez badu.

   Azpikontratistak tratamendu arduradunaren izaera izanen du, eta, era berean, agiri honetan tratamenduaren arduradunarentzat ezarritako betebeharrak eta erantzuleak emandako jarraibideak bete beharko ditu. Hasierako arduradunari dagokio zerrenda berria arautzea, arduradun berriak datu pertsonalen tratamendu egokiari eta eraginpeko pertsonen eskubideen bermeari dagokienez dituen baldintza eta betekizun formal berberak izan ditzan. Arduradunordeak betebeharra betetzen ez badu, hasierako erantzuleak erabateko erantzukizuna izaten jarraituko du tratamenduaren arduradunaren aurrean, betebeharrak betetzeari dagokionez.
8. Isilpean gorde beharko ditu enkargu honen bidez eskuratu dituen datu pertsonalak, baita xedea amaitu ondoren ere.
9. Datu pertsonalak tratatzeko baimena duten pertsonek konfidentzialtasuna

acceso.

4. Llevar, por escrito, un registro de todas las categorías de actividades de tratamiento efectuadas por cuenta del Ayuntamiento de Zizur Mayor, que contenga al menos los requisitos exigidos en el artículo 30 RGPD.
5. No comunicar los datos a terceras personas, salvo que cuente con la autorización expresa y por escrito del responsable de tratamiento, en los supuestos legalmente admisibles.
6. En lo que respecta a las transferencias internacionales de datos, el encargado de tratamiento no podrá realizar transferencias internacionales de datos.
7. Subcontratación:
   Si fuera necesario subcontratar algún tratamiento, este hecho se deberá comunicar previamente y por escrito al responsable, con una antelación de un mes, indicando los tratamientos que se pretende subcontratar e identificando de forma clara e inequívoca la empresa subcontratista y sus datos de contacto. La subcontratación podrá llevarse a cabo si el responsable no manifiesta su oposición en el plazo establecido.
   El subcontratista, que también tendrá la condición de encargado de tratamiento, está obligado igualmente a cumplir con las obligaciones establecidas en este documento para el encargado del tratamiento y las instrucciones que dicte el responsable. Corresponde al encargado inicial regular la nueva relación de forma que el nuevo encargado quede sujeto a las mismas condiciones, y con los mismos requisitos formales que él, en lo referentes al adecuado tratamiento de los datos personales y a la garantía de los derechos de las personas afectadas. En

Parque Erreniega Parkea, s/n
31180 ZIZUR MAYOR-ZIZUR NAGUSIA
NAFARROA-NAVARRA
CIF / IFK: P3190700-I
Tel: 948181900
www.zizurmayor.es

errespetatzeko eta dagozkien segurtasun neurriak betetzeko konpromisoa hartzen dutela bermatzea. Neurri horien berri behar bezala eman behar zaie.

10. Tratamenduaren erantzuleari laguntzea, datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, aurka egiteko eta tratamendua mugatzeko eskubideen erabilerari erantzuteko orduan.
    Eraginpeko pertsonek datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, aurka egiteko eta tratamendua mugatzeko eskubideak baliatzen dituztenean, bai eta tratamendu arduradunaren aurrean banakako erabaki automatizatuen xede ez izateko eskubidea ere, arduradunak tratamendu erantzuleari jakinaraziko dio eskubideetako edozein baliatzeko eskaera, gehienez 24 orduko epean, tratamendua jasotzen duenetik zenbatzen hasita, eta horri erantzuteko garrantzitsuak izan daitezkeen behar adina dokumentu eta erregistro aurkeztuko ditu.
11. Datuen segurtasunaren urraketen/arrakalen jakinarazpena
    Tratamendu arduradunak tratamenduaren erantzuleari jakinaraziko dio, bidegabeko atzerapenik gabe, eta, nolanahi ere, 24 orduko epean, telefonoz, posta elektronikoz edo pertsonalki, bere ardurapean dituen datuen balizko segurtasun urraketa, eta horrekin batera, gorabehera dokumentatzeko eta jakinarazteko informazio garrantzitsua.
    Datu pertsonalen segurtasun urraketatzat hartzen da segurtasun urraketa oro, baldin eta, DBEOn xedatutakoaren arabera, transmitititutako, gordetako edo beste modu batean tratatutako datu

el caso de incumplimiento por parte del subencargado, el encargado inicial seguirá siendo plenamente responsable ante el responsable de tratamiento en lo referente al cumplimiento de las obligaciones.

8. Mantener el deber de secreto respecto a los datos de carácter personal a los que haya tenido acceso en virtud del presente encargo, incluso después de que finalice su objeto.
9. Garantizar que las personas autorizadas para tratar datos personales se comprometan a respetar la confidencialidad y a cumplir las medidas de seguridad correspondientes, de las que hay que informarles convenientemente.
10. Asistir al responsable del tratamiento en la respuesta del ejercicio de los derechos de acceso, rectificación, supresión, oposición y limitación del tratamiento.
    Cuando las personas afectadas ejerzan los derechos de acceso, rectificación, supresión y oposición, limitación del tratamiento, y a no ser objeto de decisiones individualizadas automatizadas ante el encargado de tratamiento, este informará de la solicitud del ejercicio de cualquiera de los derechos, al responsable de tratamiento, en el plazo máximo de 24 horas desde su recepción y aportará cuantos documentos y registros puedan ser relevante que permitan dar respuesta al mismo.
11. Notificación de violaciones /brechas de la seguridad de los datos
    El encargado de tratamiento notificará al responsable de tratamiento sin dilación indebida y en cualquier caso en el plazo de 24 horas, mediante comunicación telefónica, por correo electrónico o

Parque Erreniega Parkea, s/n
31180 ZIZUR MAYOR-ZIZUR NAGUSIA
NAFARROA-NAVARRA
CIF / IFK: P3190700-I
Tel: 948181900
www.zizurmayor.es

pertsonalak ustekabean edo legez kontra suntsitzen, galtzen edo aldatzen badira, edo datu horiek baimenik gabe jakinarazten edo eskuratzen badira.
Tratamenduaren erantzuleari dagokio bai Datuak Babesteko Espainiako Agentziari bai interesdunei jakinaraztea, gorabeherak arrisku handia eragin ote dezakeen pertsona fisikoen eskubide eta askatasunentzat.

12. Tratamenduaren erantzuleari datuen babesari buruzko eragin ebaluazioak egiten laguntzea, hala dagokionean.
13. Kontrol-agintaritzari aldez aurreko kontsultak egiten laguntzea tratamenduaren erantzuleari, hala dagokionean.
14. Erantzulearen eskura jartzea bere betebeharrak betetzen dituela frogatzeko behar duen informazio guztia, bai eta erantzuleak edo hark baimendutako beste auditore batek egiten dituen auditoriak edo ikuskapenak egiteko behar dena ere.

personalmente, la posible violación de seguridad de los datos que tenga a su cargo, juntamente con la información relevante para la documentación y comunicación de la incidencia.
Se considera violación de seguridad de los datos personales a toda violación de seguridad que ocasiones la destrucción, pérdida o alteración accidental o ilícita de datos personales transmitidos, conservados o tratados de otra forma, o la comunicación o acceso no autorizados a dichos datos, según lo dispuesto en el RGPD.
Corresponde al responsable de tratamiento tanto la notificación a la Agencia Española de Protección de datos, como a los interesados, si la incidencia puede suponer un alto riesgo para los derechos y libertades de las personas físicas.

12. Dar apoyo al responsable del tratamiento en la realización de las evaluaciones de impacto relativas a la protección de datos, cuando proceda.
13. Dar apoyo al responsable del tratamiento en la realización de las consultas previas a la autoridad de control, cuando proceda.
14. Poner a disposición del responsable toda la información necesaria para demostrar el cumplimiento de sus obligaciones, así como para la realización de las auditorias o las inspecciones que realicen del responsable u otro auditor autorizado por él.

**HAMALAUGARRENA: HITZARMENAREN IZAERA ADMINISTRATIBOA**

Hitzarmen honek izaera administratiboa du; horrenbestez, Udalak hitzarmena bete eta interpretatzeko ematen dituen egintza eta

**DECIMOCUARTA: NATURALEZA ADMINISTRATIVA DEL CONVENIO**

El presente convenio tiene naturaleza administrativa, por lo que cuantos actos y acuerdos del Ayuntamiento sean dictados en

Parque Erreniega Parkea, s/n
31180 ZIZUR MAYOR-ZIZUR NAGUSIA
NAFARROA-NAVARRA
CIF / IFK: P3190700-I
Tel: 948181900
www.zizurmayor.es

erabaki guztien kontra jotzen ahalko da, Nafarroako Toki Administrazioak arautzen dituen araudian eta gainerako arauetan aurreikusitakoarekin bat.

Eta ados daudela adierazteko, agiri hau sinatu dute huraxe osatzen duten 16 orrialdeetako bakoitzean, idazpuruan adierazitako tokian eta egunean.

relación con el cumplimiento e interpretación del mismo, podrán ser impugnados en la forma prevista por la Normativa reguladora de las Administraciones Locales de Navarra y el resto del ordenamiento jurídico.

Y en prueba de conformidad, firman el presente documento en cada una de las 16 páginas que consta, en el lugar y fecha indicados en el encabezamiento.

Zizur Nagusian, 2025eko otsailaren 10(e)an

En Zizur Mayor, a 10 de febrero de 2025

**Dnª. Mª del Mar Trapote Redondo And.**

**Erreniega Ardoi Mendi Klubeko presidentea / Presidenta del Club de Montaña Erreniega Ardoi**

**D. Jon Gondán Cabrera Jn.**

**Zizur Nagusiko Udaleko alkatea / Alcalde del Ayuntamiento de Zizur Mayor**

Zizur Nagusiko Udala
Ayuntamiento de Zizur Mayor

Parque Erreniega Parkea, s/n
31180 ZIZUR MAYOR-ZIZUR NAGUSIA
NAFARROA-NAVARRA
CIF / IFK: P3190700-I
Tel: 948181900
www.zizurmayor.es

*- 1. ERANSKINA -*

## *-ERANTZUNKIZUNPEKO ADIERAZPENA*

Izen-deiturak: ..............................................................................................................., helbidea, jakinarazpenen ondorioetarako: ........................................................................................................ NANa: ................................................. Telefonoa: .................................... Faxa ......................................, helbide elektronikoa: ..................................., nire izenean edo honako hau ordezkatuz (bidezkoa dena) ................................................................................................................................., helbidea: ................................................................................. IFK:.................................................. Telefono zenbakia: .................................... Fax zenbakia: ................................................

## ADIERAZTEN DUT:

- Bete egiten ditudala Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean onuradun izateko ezarritako baldintza orokorrak, bai eta deialdian berariaz aurreikusitakoak ere.
- Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13.2 artikuluan onuradun izateko ezarritako debekuetatik bat bera ere ez dudala,
- Egunean ditudala zergei nahiz Gizarte Segurantzari buruzko betebeharrak.
- Konpromisoa hartzen dudala eskatutako laguntzaren zenbatekoa erabiltzeko dirulaguntza emateko oinarritzat hartu diren helburuak eta jarduerak betetzeko

Eta hala jasota gera dadin eta behar diren ondorioetarako, agiri hau egin eta sinatzen dut,

Zizur Nagusian, 202 eko _____________aren ___ (e)an

(Sinadura)

**Datuen babesa:** Prozedura administratiboaren tramitazioa kudeatzeko xedearekin erabiliko diren izaera pertsonaleko datuen tratamenduaren erantzulea Zizur Nagusiko Udala da aurkeztu edo eskatu direnerako. Ez zaizkie hirugarrenei daturik emanen legezko betebeharren bat badago izan ezik. Datuak eskuratzeko, zuzentzeko edo baliogabetzeko eskubidea duzu udaleko bulegoetara zuzenduz. Datuen tratamenduaren zerrenda eta datuen babeserako informazio gehigarri eta zehatza kontsulta dezakezu gure webgunean: www.zizurnagusia.eus

**Protección de datos:** El Ayuntamiento de Zizur Mayor es el responsable de tratamiento de los datos de carácter personal que se utilizarán con la finalidad de gestionar la tramitación del procedimiento administrativo para el que han sido presentados o solicitados. No se cederán datos a terceros salvo obligación legal. Tiene derecho a acceder, rectificar y suprimir los datos dirigiéndose a las dependencias municipales. Puede consultar el listado de tratamiento de datos y la información adicional y detallada sobre protección de datos en nuestra web: www.zizurmayor.es

Zizur Nagusiko Udala
Ayuntamiento de Zizur Mayor

Parque Erreniega Parkea, s/n
31180 ZIZUR MAYOR-ZIZUR NAGUSIA
NAFARROA-NAVARRA
CIF / IFK: P3190700-I
Tel: 948181900
www.zizurmayor.es

***- 2. ERANSKINA-***

## *ERANTZUNKIZUNPEKO ADIERAZPENA, XEDE BERERAKO ESKATUTAKO DIRULAGUNTZEI BURUZKOA.*

Izen-deiturak: ..........................................................................................................................., helbidea, jakinarazpenen ondorioetarako: .......................................................................................................... NANa: ................................................. Telefonoa: .................................... Faxa ......................................, helbide elektronikoa: ..................................., nire izenean edo honako hau ordezkatuz (bidezkoa dena) ..........................................................................................................................., helbidea: ................................................................................. IFK:................................................. Telefono zenbakia: .................................... Fax zenbakia: ................................................

Eskatutako dirulaguntzari dagokionez, ADIERAZTEN DUT:

☐ Deialdi honen xederako, ez dudala eskuratu edo eskatu beste administrazio publiko batzuen, beste erakunde publiko edo pribatu batzuen edo partikularren inolako dirulaguntzarik, ez Estatuan, ez nazioartean.

☐ Deialdi honen xederako, honako dirulaguntza hauek eskatu ditudala beste administrazio publiko batzuetatik, beste erakunde publiko edo pribatu batzuetatik edo partikularrengandik, Estatukoak zein nazioartekoak izan:

☐ Deialdi honen xederako honako dirulaguntza hauek eskuratu ditudala beste administrazio publiko batzuetatik, beste erakunde publiko edo pribatu batzuetatik edo partikularrengandik, Estatukoak zein nazioartekoak izan:

**Eskatutako dirulaguntzak: (adierazi eguna, erakundea eta zenbatekoa)**

**Lortutako dirulaguntzak: (adierazi eguna, erakundea eta zenbatekoa)**

Zizur Nagusia, 202 eko _____________aren ___ (e)an
(Sinadura)

**Datuen babesa:** Prozedura administratiboaren tramitazioa kudeatzeko xedearekin erabiliko diren izaera pertsonaleko datuen tratamenduaren erantzulea Zizur Nagusiko Udala da aurkeztu edo eskatu direnerako. Ez zaizkie hirugarrenei daturik emanen legezko betebeharren bat badago izan ezik. Datuak eskuratzeko, zuzentzeko edo baliogabetzeko eskubidea duzu udaleko bulegoetara zuzenduz. Datuen tratamenduaren zerrenda eta datuen babeserako informazio gehigarri eta zehatza kontsulta dezakezu gure webgunean: www.zizurnagusia.eus

**Protección de datos:** El Ayuntamiento de Zizur Mayor es el responsable de tratamiento de los datos de carácter personal que se utilizarán con la finalidad de gestionar la tramitación del procedimiento administrativo para el que han sido presentados o solicitados. No se cederán datos a terceros salvo obligación legal. Tiene derecho a acceder, rectificar y suprimir los datos dirigiéndose a las dependencias municipales. Puede consultar el listado de tratamiento de datos y la información adicional y detallada sobre protección de datos en nuestra web: www.zizurmayor.es

Zizur Nagusiko Udala
Ayuntamiento de Zizur Mayor

Parque Erreniega Parkea, s/n
31180 ZIZUR MAYOR-ZIZUR NAGUSIA
NAFARROA-NAVARRA
CIF / IFK: P3190700-I
Tel: 948181900
www.zizurmayor.es

***-- 3. ERANSKINA- -***

**FITXA: DOKUMENTAZIOA, FROGAGIRI EKONOMIKOAK.**

**KIROL KLUBA:** ____________________________ **IFZ:** _________________

| Zk. | HORNITZAILEA | ZENBAKIA Faktura/ Gastua | DATA Faktura/Gastua | Zenbatekoa | Kontzeptua | Ordainketa data |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| **GASTUAK, GUZTIRA** | | | | | | |

……………………..……………..(e)an, 2025eko …..……...aren ….(e)an.

ON
IKUSIA

PRESIDENTEA ERAKUNDEAREN ZIGILUA

**Datuen babesa:** Prozedura administratiboaren tramitazioa kudeatzeko xedearekin erabiliko diren izaera pertsonaleko datuen tratamenduaren erantzulea Zizur Nagusiko Udala da aurkeztu edo eskatu direnerako. Ez zaizkie hirugarrenei daturik emanen legezko betebeharren bat badago izan ezik. Datuak eskuratzeko, zuzentzeko edo baliogabetzeko eskubidea duzu udaleko bulegoetara zuzenduz. Datuen tratamenduaren zerrenda eta datuen babeserako informazio gehigarri eta zehatza kontsulta dezakezu gure webgunean: www.zizurnagusia.eus

**Protección de datos:** El Ayuntamiento de Zizur Mayor es el responsable de tratamiento de los datos de carácter personal que se utilizarán con la finalidad de gestionar la tramitación del procedimiento administrativo para el que han sido presentados o solicitados. No se cederán datos a terceros salvo obligación legal. Tiene derecho a acceder, rectificar y suprimir los datos dirigiéndose a las dependencias municipales. Puede consultar el listado de tratamiento de datos y la información adicional y detallada sobre protección de datos en nuestra web: www.zizurmayor.es

Parque Erreniega Parkea, s/n
31180 ZIZUR MAYOR-ZIZUR NAGUSIA
NAFARROA-NAVARRA
CIF / IFK: P3190700-I
Tel: 948181900
www.zizurmayor.es

*- ANEXO 1 -*

## *-DECLARACIÓN RESPONSABLE*

D/ Dña........................................................................................................................, con domicilio a efectos de notificaciones en ..............................................................................................................y D.N.I. .................................................Teléfono ....................................Fax ......................................, e-mail................................... por sí o en representación de (según proceda) ......................................................................................................................... con domicilio en...................................................................................NIF.....................................................Teléfono número.................................... Fax número ...............................................

## DECLARA:

- Que cumple los requisitos generales exigidos para obtener la condición de beneficiaria establecidos en la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y los específicos previstos en la convocatoria.

- Que no se halla incursa en ninguna causa de prohibición para obtener la condición de beneficiaria de las previstas en el artículo 13.2 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

- Que se halla al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias y con la Seguridad Social.

- Que se compromete a destinar el importe de la subvención que solicita al cumplimiento de los objetivos y actividades que fundamenta la concesión de la subvención.

Y para que así conste y surta los efectos oportunos, expido y firmo la presente,

Zizur Mayor- Zizur Nagusia, a __________de________________________ de______________

(Firma)

**Datuen babesa:** Prozedura administratiboaren tramitazioa kudeatzeko xedearekin erabiliko diren izaera pertsonaleko datuen tratamenduaren erantzulea Zizur Nagusiko Udala da aurkeztu edo eskatu direnerako. Ez zaizkie hirugarrenei daturik emanen legezko betebeharren bat badago izan ezik. Datuak eskuratzeko, zuzentzeko edo baliogabetzeko eskubidea duzu udaleko bulegoetara zuzenduz. Datuen tratamenduaren zerrenda eta datuen babeserako informazio gehigarri eta zehatza kontsulta dezakezu gure webgunean: www.zizurnagusia.eus

**Protección de datos:** El Ayuntamiento de Zizur Mayor es el responsable de tratamiento de los datos de carácter personal que se utilizarán con la finalidad de gestionar la tramitación del procedimiento administrativo para el que han sido presentados o solicitados. No se cederán datos a terceros salvo obligación legal. Tiene derecho a acceder, rectificar y suprimir los datos dirigiéndose a las dependencias municipales. Puede consultar el listado de tratamiento de datos y la información adicional y detallada sobre protección de datos en nuestra web: www.zizurmayor.es

Zizur Nagusiko Udala
Ayuntamiento de Zizur Mayor

Parque Erreniega Parkea, s/n
31180 ZIZUR MAYOR-ZIZUR NAGUSIA
NAFARROA-NAVARRA
CIF / IFK: P3190700-I
Tel: 948181900
www.zizurmayor.es

*- ANEXO 2-*

**-DECLARACIÓN RESPONSABLE DE SOLICITUD DE SUBVENCIÓN PARA EL MISMO OBJETO**

D/Dña............................................................................................................., con domicilio a efectos de notificaciones en ..........................................................................................................y D.N.I. ......................................................................Teléfono ...................................Fax ......................................, email................................... por sí o en representación de (según proceda) ....................................................................................................................... con domicilio en ..................................................................................NIF................................................... Teléfono número.................................... Fax número ...............................................

**En relación con la subvención solicitada, DECLARA:**

☐ No haber solicitado ni obtenido ningún tipo de subvención de otras Administraciones Públicas, Entes públicos o privados o de particulares, nacionales o internacionales, para la misma finalidad que la de esta convocatoria.

☐ Haber solicitado las siguientes subvenciones de otras Administraciones Públicas, Entes públicos o privados o de particulares, nacionales o internacionales, para la misma finalidad que la de esta convocatoria:

☐ Haber obtenido las siguientes subvenciones de otras Administraciones Públicas, Entes públicos o privados o de particulares, nacionales o internacionales, para la misma finalidad que la de esta convocatoria:

**Subvenciones solicitadas: (Indíquese fecha, entidad, importe)**

**Subvenciones obtenidas: (Indíquese fecha, entidad, importe)**

Zizur Mayor- Zizur Nagusia, a __________de________________________ de______________
(Firma)

**Datuen babesa:** Prozedura administratiboaren tramitazioa kudeatzeko xedearekin erabiliko diren izaera pertsonaleko datuen tratamenduaren erantzulea Zizur Nagusiko Udala da aurkeztu edo eskatu direnerako. Ez zaizkie hirugarrenei daturik emanen legezko betebeharren bat badago izan ezik. Datuak eskuratzeko, zuzentzeko edo baliogabetzeko eskubidea duzu udaleko bulegoetara zuzenduz. Datuen tratamenduaren zerrenda eta datuen babeserako informazio gehigarri eta zehatza kontsulta dezakezu gure webgunean: www.zizurnagusia.eus

**Protección de datos:** El Ayuntamiento de Zizur Mayor es el responsable de tratamiento de los datos de carácter personal que se utilizarán con la finalidad de gestionar la tramitación del procedimiento administrativo para el que han sido presentados o solicitados. No se cederán datos a terceros salvo obligación legal. Tiene derecho a acceder, rectificar y suprimir los datos dirigiéndose a las dependencias municipales. Puede consultar el listado de tratamiento de datos y la información adicional y detallada sobre protección de datos en nuestra web: www.zizurmayor.es

Zizur Nagusiko Udala
Ayuntamiento de Zizur Mayor

Parque Erreniega Parkea, s/n
31180 ZIZUR MAYOR-ZIZUR NAGUSIA
NAFARROA-NAVARRA
CIF / IFK: P3190700-I
Tel: 948181900
www.zizurmayor.es

*- ANEXO 3-*

**FICHA: DOCUMENTACION JUSTIFICATIVA ECONÓMICA.**

**CLUB DEPORTIVO:** ___________________________ **NIF**: ________________

| Nº | PROVEEDOR | NUMERO Factura/ Gasto | FECHA Factura/Gasto | Importe | Concepto | Fecha de abono |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| TOTAL GASTOS | | | | | | |

En …………………….……………... a ……... de ……………… de 20 ….

Vº Bº
EL/ LA PRESIDENTE/A SELLO DE LA ENTIDAD

**Datuen babesa:** Prozedura administratiboaren tramitazioa kudeatzeko xedearekin erabiliko diren izaera pertsonaleko datuen tratamenduaren erantzulea Zizur Nagusiko Udala da aurkeztu edo eskatu direnerako. Ez zaizkie hirugarrenei daturik emanen legezko betebeharren bat badago izan ezik. Datuak eskuratzeko, zuzentzeko edo baliogabetzeko eskubidea duzu udaleko bulegoetara zuzenduz. Datuen tratamenduaren zerrenda eta datuen babeserako informazio gehigarri eta zehatza kontsulta dezakezu gure webgunean: www.zizurnagusia.eus

**Protección de datos:** El Ayuntamiento de Zizur Mayor es el responsable de tratamiento de los datos de carácter personal que se utilizarán con la finalidad de gestionar la tramitación del procedimiento administrativo para el que han sido presentados o solicitados. No se cederán datos a terceros salvo obligación legal. Tiene derecho a acceder, rectificar y suprimir los datos dirigiéndose a las dependencias municipales. Puede consultar el listado de tratamiento de datos y la información adicional y detallada sobre protección de datos en nuestra web: www.zizurmayor.es